

3 kluba



IZAKI MIRAGARRIEN ENTZIKLOPEDIA

Sorginei eta maitagarriei
buruzko entziklopedia bikaina
modu ederrean ilustratua.

Bidaiatu denboran zehar
eta ezagutu izaki miragarrien
mundu liluragarria.



AURKIBIDEA

ESTREINALDIAK ETB3n

4.
or.

IRABAZI ARTE!

5.
or.

EITB PODCAST

6.
or.

3 KLUBA KALEAN

7.
or.

3 KLUBAREN ABANTAILAK

9.
or.

BIZI EITB JAIA 2022

10.
or.

3 ENE KANTAK

11.
or.

GO!AZEN

14.
or.



3 kluba

3 kluba aldizkaria
EiTB

Basurtuko Kaputxinoak, 2
48013 Bilbo
94 656 30 00

HIRU3 komunitatea
3kluba@eitb.eus

Edizio arduraduna: EiTB

Diseinua, ilustrazioa eta
digitalizazioa: eitb.eus

Kaixo, lagunak!

Beste urte bat pasa da, eta hamaika kontu eta kantu partekatu ditugu elkarrekin. Gero eta lagun gehiago gara 3 Klubean, gero eta lagun gehiagok ezin hobeto pasatzen dugu 3 Klubaren familia handi honetan, eta horrela jarraituko dugu, batzen gaituzten emozio eta abentura horiek guztiak elkarrekin bizitzen!

Urte berriaren etorrerarekin, 3 Kluba eskutitzak bidaltzen ari da kide guztiei, denok eduki ditzazuen klubeko txartela eta nire irudi politarekin egindako eskumuturrekoa.

2022. urtea benetan bikaina izan da 3 Kluba osatzen dugun guztiontzat. Kalera irten gara, berriz hainbat ekitalditan elkar ikusteko aukerarekin, eta nola ez, zenbat gozatu dugun elkarrekin jolasten eta 3 Klubeko protagonistak bertatik bertara ezagutzen!!

3 Klubeko kide izanik gainera, hainbat gune bisitatu eta sari ugariz gozatzeko aukera izan dugu: liburuak, pelikula-estreinaldiak, opariak, museoetako sarrerak...

Gabonak gainean ditugu eta, urtero bezala, Olentzerori eta Errege Magoei zuen eskutitza idazteko txokoa dugu 3 Klubaren webgunean.

Gainera, opor egunotan izango dugu zer ikusi eta zertaz gozatu ETB3n: pelikulak, emanaldi bereziak eta nola ez, gogokoenak dituzuen marrazki bizidunak.

Gogoratu eduki horiek denak ikusgai dauzkazuela 3 Klubaren Appean, webgunean eta telebistan!

3 Klubean hegan jarraitzen dut, zuekin batera, eta zuen abentura-lagun izaten jarraituko dut.

3Klubean ikusiko dugu elkar!

ESTREINALDIAK ETB3n

Marrazki bizidun eta telesail berriak ez dira faltako ETB3n. Gustukoenak dituzuen marrazki bizidunekin batera, berriak ikusgai dituzue dagoeneko, eta urte berriarekin, estreinaldiak datoz begira...



Ernest eta Rebeka



Mini Ninjak



Kiddeetak



KAPITULU BERRIAK

Doraemon



Super Dino

Gogoratu, gainera, marrazki hauek denak eta gehiago 3 klubaren euskarri digitalean zein ETB1en ikus ditzakezula!

Jarraitu dezagun elkarrekin ondo pasatzen!



Helenaren eskola txikia

"IRABAZI ARTE!"

BUELTAN DA BERRIZ!

Zer gertatuko ote da telesail arrakastatsu honen bigarren denboraldian?

Arene Bartzelonara joango da edo Jonekin egoera konpontzen saiatuko da? Gogoratu, lehenengo denboraldian, Arene bere familiarekin Bartzelonatik Learora bizitzera etorri zela, eta une horretatik bizimodu berri batera egokitu behar izan zuela. Bide horretan, eragozpenak eragozpen, aurrera egitea lortu zuen, besteak beste futbolari esker eta han egindako lagun guztiei esker.

Larrak "Printzesen" entrenatzailea izaten jarraituko al du?

Nora eta Ametsek elkarrekin jarraituko al dute?

Galdera guzti hauen erantzuna, datorren otsailetik aurrera izango duzue!

"Printzesak" futbol taldea denboraldi berriari aurre egiteko prest dator. Eta zu?



EITBpodkast atarian, mota guztietako podcastak entzuteaz gain, ipuin bildumak ere badauzkazue!

Gure entzule txikienei ere entzuten jarraitzeko eskaintza egin nahi dugu. “Kuku”, “Kokoriko”, “Ohean mendi artean”, “Inuiten mila zuriak” eta beste hainbat ipuin bilduma ere eskura dituzue. Ipuin horiek nazioarteko tradizioan eta baloreetan oinarrituta daude, ahoz-ahoz eta belarriz-belarri zabaltzeko.



<https://www.eitb.eus/eitbpodkast/aisia-fikzioa/audioliburuak/>
helbidean, horiek eta gehiago izango dituzue, nahieran!

3KLUBA KALEAN!

Aurten ere kalean elkartzeko eta jolasteko aukera izan dugu...Jaiak non, 3 Kluba han!! Horri esker, 3 Kluba handitzen doa urtez-urte.

Eskerrik asko denoi!



ARABA EUSKARAZ
OLARIZUN



EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN JAIA
BASTIDAN



KILOMETROAK
IBARRAN



NAFARROA OINEZ
TAFALLAN



HERRI URRATS
SENEREN

3 kluba aplikazioa: Marrazkiak eta saioak nonahi, noiznahi eta di-da batean!

3 Kluba, zure mugikorrean



Zure gustuko marrazki bizidunak eta telesailak nahi dituzunean ikusi zure mugikorrean bertan.

Deskargatu gure aplikazioa eta eraman eduki gustukoenak zurekin nahi duzun lekura. iOS eta Android mugikorretarako erabilgarri dago.

3 Kluba, zure tabletean



Tabletean ere 3 Klubaren edukiak gozatu ditzakezu. Umeek, beraien gustuko edukiak gordetzeko primerako euskarria da. Deskargatu gure tableteko aplikazioa. iOS eta Android aukeretan erabilgarri dago.



3 Kluba, zure Smartv telebistan



Internetera konexioa duen telebista izanda, 3 Klubaren edukiekin gozatzeko hainbat aukera dituzu. Telebista konektatuetarako propio prestatutako 3 Kluba aplikazioa hainbat marka eta gailutan eskuragarri dago. Halaber, ETB3ko botoi gorria erabiltzaileak erabili izango dituzu zure gustuko eduki guztiak. Honako hornitzaile hauetan dago eskuragarri:

Samsung, Philips, HbbTV , AndroidTV

3 kluba


Kaixo lagunok!!

3 Klubeko kideontzat hainbat abantaila eta opari ditugu, besteak beste, beti daukagulako zer zozketatu zuentzat!

Doako sarrerak lortzeko aukera ere badago. Jarraian dituzun gune horietara joateko sarrera bat oparituko dizugu, beti ere, helduentzako bat erosita.



www.eitb.eus/kidegin



ZURE URTEBETETZEAN ZORIONDU EGINGO ZAITUGU

Zure urtebetetzean zoriondu egingo zaitugu!
Zure argazkia telebistan eta webgunean ikusi dezakezu zure urtebetetzean!



LIBURUAK OPARI!

Ibaizabal argitaletxearen eskutik liburuak zozkatuko ditugu hilero, hilabete horretan urteak bete dituzuen kideen artean.



**ZOZKETAK,
EKITALDIETARAKO
SARRERAK, PRODUKTU
SORTAK...**

Zozketa guztietan parte hartzeko aukera izango duzu!

 **eitb**

BIZI EITB JAIA 2022

10.000 lagun baino gehiagok parte hartu zuten BEC!en ospatutako Bizi EITB jai erraldoi eta arrakastatsuan.

Klubeko kide guztiek ezin hobeto pasa zenuten, baita 3 Klubeko kide egin zireten guztiok ere. Gure familia handitzen doa, gero eta gehiagok osatzen dugu 3 Kluba, eta hori, harro egoteko modukoa da!

Eskerrik asko guztioi eta gora 3 Kluba!!!



3 ENE KANTAK

3 Ene Kantak saioa 4. denboraldi berrituarekin itzuli da aurtun, lagun eta atal berriz josita.

Mintxo bihurriak hankaz-gora jarri ditu lagun guztiak eta beraiekin barreak bota, ondo pasa eta ikasteko aukera daukazue egunero!!

“Su Ta Fu”n esaterako, kozinatzen ikasiko duzue, kozinatzen baina ondo pasatzen ere! Edota “Ahaika” atalean hurrei ezezagunak zaizkien frogak jarriko dizkiegu...Musika, dantza...Eta nola ez, irakurketa txokoa “Atxamitxa”n.

Eguneko atalez gain, gogoratu, ETB3n larunbatetan 15:30ean, eta igandeetan 9:30ean!! Ez ezazue galdu!!

Saioko eduki guztiak 3 Klubaren webgunean, www.eitb.eus/3enekantak, Appean eta HbbTVan izango dira eskuragai, telebistan eskaini bezain laster.



ESKURATU ZURE PRODUKTU GOGOKOENAK!

3 kluba

EITBko online dendan denetarik aurkitu dezakezu...

Kamisetak, aldizkariak, liburuak...Eta nola ez, zure telesail
gustukoenen produkturik onenak!

Sartu gure denda birtualean eta ondo begiratu zer aukeratu nahi duzun!

Gustuko dena nahieran! Hauek guztiak eta gehiago dagoeneko salgai!



eitbdenda.eus

IRAKURKETA TXOKOA

Olentzero Ipuinen herrialdean

Egilea: **Vivim del Cuentu**

Marrazkilaria: **Maitane Bautista**

Bilduma: **Zirimiri (2. zk.)**

Orrialdeak: **24**

Adina: **6 urtetik aurrera**

LABURPENA:

Horra, horra, gure Olentzero!

Eta horra, Napo, bere asto kutuna. Gabon gau magikoa iritsita, hainbat gertakari biziko dituzte biek. Ipuinen herrialdean hasiko dira, eta Euskal Herrian amaitu. Zatoz gurekin eta ipuinetako pertsonaia ezagunak izango dituzu lagun.



Tximeletak eta gozokiak

Egilea: **Nahikari Gabilondo**

Marrazkilaria: **Maitane Bautista**

Bilduma: **Matxinsalto (61. zk.)**

Orrialdeak: **64**

Adina: **8 urtetik aurrera**

LABURPENA:

Bero egiten du, baina Kimuk nahiago du tximeleten atzetik korrika eta haiekin jolasean ibili lagunekin uretara sartu baino. Iseka egiten diote lagunak, baina berdin dio; Kimuk ez du haien beharrik, aski baitu tximeletekin.

Mattin ez da tximeleten atzetik ibiltzen, baina bai barraskiloen atzetik. Badaki euria egin ondoren ezkutalekuetatik irteten direla barraskiloak. Eta zain egoten da; euriaren osteko eguzkiaren zain. Eguzkia maite baitu, eta gozokiak; aitonak ematen dizkion gozokiak.

Uretako misterioa

Egilea: **Leo Bican**

Marrazkilaria: **Pablo Broseta**


Bilduma: **Astrojokoak (3. zk.)**

Orrialdeak: **152**

Adina: **8 urtetik aurrera**

LABURPENA:

Harrikoskorreko taldea oso ausart iritsi da lehen arerioei irabazi ondoren. Baina baliteke orain guztia zapuztea; izan ere, urpeko lehian, itsastarren eskuadra izango dute aurrean. Ur lasterraren aurka egin beharko dute igerian Astrojokoetan aurrera jarraitu nahi badute. Astrobola du izena moda-modan dagoen kirolak. Gizakiek, martetarrek eta minotauroek ere jokatzen dute. Zu bakarrik falta zara! Taldeko izarra!



Sorginak

Egilea: **Cécile Roumiguère**

Marrazkilaria: **Benjamin Lacombe**

Bilduma: **Izaki miragarrien entziklopedia (1. zk.)**

Orrialdeak: **88**

Adina: **10 urtetik aurrera**

LABURPENA:

Izaki miragarrien entziklopedia bildumako ale honek alegiazko izakietatik errealitatera arteko bidea egiten du.

Sorginak antzinako gau haietatik gaur egunera arte zabaldu diren istorioetako izakiak dira, baina aldi berean, baita benetako pertsonak ere, existitu ziren eta, askotan, jazarpena jasan zuten eta zigortu egin zituzten emakumeak.

Mari, Lilith, Zirtze, Baba Yaga, Ama Shipton... Zalantzarik gabe, emakume ezberdinak, menderakitzak dira.

**Betidanik
haur eta gazte
literaturan murgilduta!**

 **IBAIZABAL**
www.ibaizabal.com



9.0 denboraldiarekin, Basakabiko lagunekin emozioz betetako abenturak bizitzen jarraitzen dugu, aurten ere, hainbat nobedadarekin...

Basakabi udalekuak zuzendari berri bat ezagutuko du: Oier Barahona zuzendaria, hain zuzen ere. Bere alboan, begirale lanetan, Olatz egongo da.

Gainera, ikasleen artean ere lagun berriak iritsi dira Basakabira: Gontzal, Saioa eta Alain. Hauekin batera, nola ez, hor ikusiko ditugu June, Maddi, Iraia, Garazi eta gainontzeko lagunak.

Baina aspaldiko lagunak ere batuko zaizkie, izan ere, Eli, Ane, Zuri eta Enara, ikasle pisu batean biziko dira eta haien egunerokotasunaren nondik norakoak ere bilduko ditu telesailak.

Nolako harremanak sortuko ote dira aurten euren artean??

Ez galdu “Go!azen”, ostiralero, ETB1en eta www.eitb.eus-en. Gainera, “Go!azen” Appean, EITB Nahieranen eta Youtuben ere izango dira eskuragarri denboraldi berriaren atalak.

Go!azen eta gozatu!!





Euskalteka

Euskal edukien plataforma

Lankidetzaz:  eitb




Aurki ezazu  **REPLAYTEKA**n.


euskaltel

3 kluba



Haur eta gaztetxoentzako euskarazko edukirik gogokoenak eskura ditugu Youtube plataforman, 3 Kluba kanalean. “**3 Ene Kantak**”, “**Go!Azen**”, “**Irabazi arte**” eta beste hainbat saioaren, marrazki bizidunen eta telesailen bideo ugari ditugu ikusgai, eta handituz doa eskaintza egunez egun.



3 ENE KANTAK

kluba



Harpidetu zaitez 3 Kluba kanalera, eta guztiaren berri izango duzu!

Zinema
EUSKARAZ

Abenduaren 27tik 30era

Zinegabonak

1€
Zinemarako eta
tailerretarako
sarrera

Tailerra: SORTU DEZAGUN MUSIKA SOINUAK ERABILIZ

Joseba Beristain

INFO + www.zineuskadi.eu



BEASAIN (ABENDUAK 27, 12:00etan) • **BERMEO** (ABENDUAK 30, 18:00etan) •
URDULIZ (ABENDUAK 27, 17:30etan)

ZINEUSKADI >>



17



EZAE

2023

Urtarrila

A	A	A	O	O	L	I
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					

Otsaila

A	A	A	O	O	L	I
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28					

Martxo

A	A	A	O	O	L	I
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

Apirila

A	A	A	O	O	L	I
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30

Maiatza

A	A	A	O	O	L	I
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

Ekaina

A	A	A	O	O	L	I
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30		

Uztaila

A	A	A	O	O	L	I
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30
31						

Abuztua

A	A	A	O	O	L	I
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

Iraila

A	A	A	O	O	L	I
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	

Urria

A	A	A	O	O	L	I
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					

Azaroa

A	A	A	O	O	L	I
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30			

Abendua

A	A	A	O	O	L	I
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31



OLENTZERO ETA MARI DOMINGI

A festive illustration of Olentzero and Mari Domingi. Olentzero, on the left, is an elderly man with a long grey beard, wearing a red tunic and a white fur cape, holding a small gift. Mari Domingi, on the right, is a woman with bright pink hair, wearing a white dress with purple accents and a tall, white, conical hat decorated with flowers. She holds a long wooden staff. They are both smiling and appear to be flying through a snowy, blue sky with stylized buildings in the background.

**ZORIONAK
ETA
URTE BERRI ON!**

Harpidetu zaitez 3Klubera, eta guztiaren berri izango duzu!

www.eitb.eus/3kluba

Gabonak gainean ditugu eta, urtero legez, 3Kluba webgunean Olentzerori eta Errege Magoei eskainitako ataria prestatu dugu.

Eskutitza idazteko aukeraz gain, jokoak, eskulanak, haurrentzako filmak eta ipuinak izango dituzue bertan, besteak beste.